Desde la Falange y la Sección Femenina surgieron mujeres que pensaban así: "hay que sacar a las mujeres de los talleres y devolverlas a las casas". Y en esta tarea no tenían, como en muchos otros ámbitos, la oposición de los perdedores. No, la mayoría de los perdedores también pensaban que el lugar de la mujer no era ni la fábrica ni la calle, sino la casa. La casa.

A mí nunca me dijeron, ni me sugirieron, que al casarme debía dejar de trabajar. Entre mi generación la mayoría no pasaron por esa experiencia y, en mi opinión, la vida les resultó más difícil.

Ahora, en cambio, las mujeres que además del trabajo de casa perciben un salario no son, como en la época de mi madre, una minoría. Y en este cambio no creo que la ideología haya sido el único motivo.

Claro que la ideología incide. No ha sido en vano el esfuerzo de muchas mujeres a lo largo del siglo veinte (libertad, autonomía, igualdad). Pero unido a ello, hay mujeres que después de casarse, de ser madres, hay algo que mantienen: la santa hipoteca.

Esto ha reducido y reducirá en el futuro el número de amas de casa.

Me parece que la tradición industrial de Euskal Herria no nos ha empujado a las mujeres hacia la actividad laboral. Los sectores metálicos dejaban escaso espacio para las mujeres. En cambio, las actividades industriales de Cataluña, como el textil, hace ya más de un siglo ofrecían ocupación a las mujeres. Tal como aprendí en casa de pequeña, la autonomía económica no trae, por sí sola, otras libertades. Pero sin autonomía económica es más difícil la libertad.

En nuestro tiempo, en cambio, hasta que las actividades de servicios fueron mayoritarias, las mujeres que trabajaban fuera de casa a cambio de un salario eran minoría: modistas, cigarreras, dependientas,...

El envejecimiento es un reto para toda la sociedad

Así lo menciona el informe. Y efectivamente lo es para toda la sociedad, pero sobre todo para los viejos de hoy y de mañana.

En los últimos años cada vez es más frecuente escuchar que la población está envejeciendo, que cada vez hay y habrá menos

egongo garela. Besteak beste, biziraupena, zorionez, gora doalako. Zahartzaroa demokratizatu egin delako.

Izan dezagun kontuan aurre-historiako indusketa ugarien artean ez dela sekula santan berrogeita hamar urtetatik gorako gorpurik aurkitu. Horiek ziren, garai hartan, zaharren artean zaharrenak.

Gaur, berriz, hirurogei urteko gipuzkoar batek gutxienez hogei urtetako biziraupena du aurretik: haurtzaro osoa eta gaztaroaren zati nagusia adina. Gaur egun, ordea, 80 urtetik gorakoak ez dira salbuespen, arau baizik. Zorioneko txostenak argitzen digunez, duela berrogeita hamar urte adin horretako pertsonak ez ziren biztanleriaren ehuneko batera heltzen. Eta gaur ia ehuneko bost dira.

Lehen aldiz gizadiaren historian, belaunaldi oso bat ari da kontinente ezezagun baten barna abiatzen. Aurrelariak dira, ez dute inorengandik maparik ez argibiderik jaso. Esploratzaleak dira. Zahartzaroaren eredu tradicionala desagertu egin da eta ez dugu, ez dute, eredu berririk sortu.

Bitartean, aurreiritzien menpean gaude. Beste garai batean, beste baldintza batzuetan esandakoak errepikatzen ditugu. Aurreirizi hoien arabera, zaharrak irakasteko bakarrik daude, heriotzaren zain patxadaz egoteko. Gerra ondoren emakumeak bezalaxe, zaharrak etxera bidaltzen ditugu. Askotan, aurre-jubilazioei esker, zahartu baiono lehen.

Gure gaurko gizartean, zaharrei auto-estimua kentzen zaie eta horrekin batera lanerako eskubidea eta ikasteko gogoa. Aldaketa demografikoak ez du, oraindik, zahartzaroari buruzko irudi berria sortu. Zaharrak arazo bat dira.

Horixe da komunikabideek nagusiki zabaltzen duten irudia. Zaharrak arazo gisa, zaharrak iraganeko lekuko, garai hauet beraienak ez balira bezala. Horregatik esaten dugu aurreiritziz jositako esaldi hau: ZURE GARAIAN. Eta, okerrago, zahar askok esaten du hori, NIRE GARAIAN.

Orainalditik kanporatuak, deserrituak, iraganerantz bidaliak. Garai bakoitz, soilik, gazteena eta helduena balitz bezala. Gorrotatuak, gainera. Gaurko gizarteak gorroto baititu zaharrak, beldurrak kutsatutako grinaz. Eta gorroto horri dagokion hitzik hurbilena, arrazakaria da. Bai.

Arrazakeria mota bat da hirurogei, hirurogeita bost, hirurogeita hamar urtetakoek eta gorakoek, berez eta eremediorik gabe, lan duin bat egiteko gauza ez direla esatea.

Zahartzaroarekiko gorrotoa zahartzaroari buruzko irainetatik dator, zertan ari garen pentsatu gabe errepikatzen ditugun aurreiritzietatik. Horri egin behar diote aurreko zaharrek.

jóvenes y más viejos. Entre otras razones, porque la esperanza de vida, afortunadamente, sigue aumentando. Porque la vejez se ha democratizado.

Debemos tener en cuenta que en las excavaciones prehistóricas nunca se han encontrado cuerpos de personas mayores de cincuenta años. En aquellos tiempos, estas personas eran las más viejas.

Hoy, en cambio, un guipuzcoano de sesenta años tiene, por lo menos, una esperanza de vida de veinte años: toda la infancia y la mayor parte de la juventud. Las personas mayores de 80 años no son la excepción, sino la regla. Tal como refleja el informe, hace cincuenta años las personas pertenecientes a ese grupo de edad no alcanzaban el 1% de la población. Hoy en día suponen casi el 5%.

Por primera vez en la historia de la humanidad, toda una generación se dirige hacia un continente desconocido. Son pioneros, no han recibido instrucciones de nadie. Son exploradores. El modelo tradicional de la vejez ha desaparecido y no han, no hemos, creado un nuevo modelo.

Mientras, dependemos de los prejuicios. Prejuicios que pertenecen a otros tiempos y según los cuáles las personas mayores sólo están para enseñar, para esperar a la muerte. Al igual que pasaba con las mujeres en la posguerra, mandamos a los viejos a casa. En muchos casos, gracias a las pre-jubilaciones, antes de que envejezcan.

En la sociedad actual, a las personas mayores se les arrebata la autoestima y, con ello, el derecho a trabajar y las ganas de aprender. El cambio demográfico aún no ha creado una nueva imagen sobre la vejez. Los mayores son un problema.

Ésta es la imagen que transmiten los medios de comunicación. Las personas mayores como un problema, testigos de tiempos pasados, como si el presente no les perteneciera. Por ello, pronunciamos esta frase llena de prejuicios: "en tus tiempos". Y, peor aún, muchos de ellos suelen decirlo, "en mis tiempos".

Expulsados del presente, desterrados. Como si el tiempo perteneciese a los jóvenes y a los adultos. Porque la sociedad de hoy en día desprecia a los mayores. Y la palabra más cercana a dicho odio es el racismo. Sí.

Decir que personas de sesenta, sesenta y cinco, setenta y más años no son capaces de realizar un trabajo digno es síntoma de racismo. El odio a la vejez viene de los prejuicios que repetimos sin ni siquiera pararnos a pensar sobre lo que hacemos. Los mayores de hoy en día tendrán que enfrentarse a ello.

Agian salbuespenik nabarmena iragarkiak dira, publizitatea. Non-bait, publizitate-eragileek ulertu dute, zinemak eta literaturak baino lehenago, zaharrak ere erosle direla, ez direla guztiak zahar izateaz lotsatzen, autoak gidatzen dituztela, kremak erabiltzen dituztela, etxeak erosten dituztela, bidaiaiak egiten dituztela.

Zahartzarotik hurbil gaudenoi komeni zaigu, beste inori baino gehiago, laurogeitatik gorakoek gelditzen zaien bizitzan izan dezaketen arrakasta. Guri komeni zaizkigu lan horretan lortuko dituzten emaitzak. Komeni zaigu haien frogatzea zahartzaroa ez dela bukaeraren hasiera, hasieraren bukaera baizik. Hortik aurrera abiatuko baikara ondorengoa. Aurrekoak lortzen ez dutena guk lortu beharko dugu. Eta egingo dugu, ziur egon.

Guk, biharko zaharrok, lan hori gizartearena baita, ez erakundeena, datozen hogeitaretan modu desberdin batetan zahartzen ikasi behar dugu. Modu aktiboan, dagokigun ahotsa aldarrikatu behar dugu, edonori dagokion protagonismoa. Ez gara jarrita geldituko, gelditzen zaigun protagonismo izpia galtzeko zain, prest dagoen edozein belarriki aspaldiko kontuak lutzaten, heriotzaren zain.

Nire belaunaldiak jarri zuen modan gaztetasuna, guk erabaki genuen gazte izatea heldu izatea baino hobe zela. Eta orain beste pausu bat gelditzen zaigu, zahartzaroa aldarrikatzea.

Erakundeei gizartearengandik sortutako ekimenak bultzatzea dagoie, ez beste. Erne egotea, ez garai batetarako egoki izan ziren neurriak errepikatzea.

Euskara

Ez dut atzera begiratzea oso gustuko. Are gehiago, zenbat eta zaharrago, orduan eta aurrera begiratzeko zaleago. Besterik ez bada ere, ustez dagokidanari kontra egiteagatik.

Euskararen kontuan, ordea, ia beste ezertan baino gehiago, atzera begiratzea, nondik gatozen gogoratzea ezinbesteko zait.

Euskara etxeko hizkuntza zela, baina etxekoak bakarrik. Kalean eta eskolan gaztelera zen nagusi. Baina benetan nagusi, ez orain bezala.

Gaur, berriz, txostenak dioenez, “biztanleriaren gehiengoa euskalduna da” gure Gipuzkoa honetan. Are gehiago, “bost eta hemeztzi urte bitarteko gipuzkoar biztanleen ehuneko laurogeita biak euskalduntzat du bere burua”. Nola demontre gertatu da aldaketa nabarmen hori? Dudarik gabe, gizartaren bultzadaz. Gehi erakundeen babesa, noski. Baina aldaketa hori ezin gerta zitekeen milaka pertsonen ahalegin tematia gabe.

Joan den urrian, Los Angelesen, bertako unibertsitate batek antolatutako jardunaldi batzuetan parte hartzeko aukera izan nuen. Han

Quizás, la excepción más evidente son los anuncios, la publicidad. Al parecer, los agentes publicitarios han comprendido, antes que el cine y la literatura, que los mayores también son compradores, que no todos se avergüenzan de la vejez, que conducen coches, que utilizan cremas, que compran casas, que viajan.

Los que nos acercamos a la vejez nos interesa, más que a nadie, el éxito que puedan tener los mayores de ochenta años en lo que les queda de vida. Nos interesan los resultados que obtienen en ese trabajo. Nos conviene que ellos demuestren que la vejez no es el comienzo del fin, sino el fin del comienzo. Porque de ahí partiremos nosotros. Debemos lograr lo que ellos no han conseguido. Y lo faremos, os lo aseguro.

Nosotros, los viejos del mañana, porque es el deber de la sociedad, y no de las instituciones. En los próximos veinte años tenemos que aprender a envejecer de otro modo. En un modo más activo, proclamando lo que nos corresponde. No nos quedaremos sentados, esperando a perder el poco protagonismo que nos queda, esperando a la muerte.

Mi generación puso de moda la juventud, nosotros decidimos que ser joven era mejor que ser adulto. Y ahora nos queda dar otro paso: proclamar la vejez.

Las instituciones deberán promover las iniciativas desarrolladas por la sociedad. Deberán estar atentos y no repetir las medidas que, en otros tiempos, fueron adecuadas.

Euskeria

No me gusta mirar hacia atrás. Es más, cuanto más envejezco, más me gusta mirar hacia adelante. Aunque sea por llevar la contraria a lo que, al parecer, me corresponde.

No obstante, en lo que al euskera se refiere, es imprescindible mirar hacia atrás y recordar de dónde venimos.

Hace cincuenta años, el euskera era una lengua familiar, de casa. En la calle o en las escuelas se imponía el castellano, no como hoy en día.

En la actualidad, tal como refleja el estudio, “la mayoría de la población guipuzcoana es euskaldun”. Es más, “el 82% de la población guipuzcoana de entre cinco y diecinueve años se considera euskaldun”. ¿A qué se debe este cambio? Sin duda alguna, al impulso de la sociedad. Y al trabajo de las instituciones, claro. Pero este cambio no sería posible sin el esfuerzo de miles de personas.

El pasado octubre, tuve la oportunidad de participar en unas jornadas organizadas por una universidad de Los Ángeles. Allí pude

egiaztu ahal izan nuen Euskal Herria erreferentzi dela, eta ez Europan bakarrik. “Borondate politikoa eta dirua batzen direnean zer gerta daitekeen jakiteko, ez dago munduan (munduan) Euskal Herria baino adibide hobeagorik” esan zidan Finlandiako saami batek.

Eta bai, onar dezagun, baina ekuazio horri zerbait falta zaio: borondate politikoa, dirua eta gizarte oso bat bultzaka. Horiek dira gure gaurko egoera sortu duten baldintzak. Demagun borondate politikoak eta diruak ez dutela atzera egingo. Gizartea, ordea, eutsiko dio? Hori da gelditzen zaigun erronka.

Kultura

1957an argitaratu zuten lehen ipuina Txilardegik eta Arestik. EGAN aldizkarian. Beraz, duela berrogeita hamar urte. Oraindik hamar urte falta ziren Durangoko Azokaren sorkuntzarako. Hamar urte ilun.

Nik beranduxeago ezagutu nuen Azoka nagusia den hori, 1970ean. Dozena erdi mahaitxo elizaren arkupeetan, asto pare bat eta gainean ohol bat. Hori zen guztia. Hori eta euriaren hotza. Abenduaren hasiera zen.

Bezerperan, Eibarreko ostattu batean gela hartu ondoren, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta ni Durangora iritsi ginen, hiria kartelez josteko asmoarekin. Kartela zuria zen eta hiru letra zituen, berdez idatziak. L U R. Gure argitaletxe jaio berria, Euskal Herriko lehen argitaletxe zibila, erlijioaren babesia ez zuen lehena, orduan eta orain esatea gustatzen zaigunez.

Heldu ginen Durangora, nire Dos Caballosean eta hasi ginen kartelak paretan jarzen. Elizaren inguruan lehen, kale nagusian ondoren. Han harrapatu gintuen poliziak eta hirurok komisaldegian bukatu genuen. Delitu ez zen oso larria izango edo guk oso konbentzigarri jokatuko genuen. Gauza da handik gutxira utzi gintutzela libre, kartelak eta kola gordez, hori bai.

Biharamunean azaldu ginen azokara, liburuak dos caballosean sartuta eta antolatzaleek esan ziguten ez genuela gure liburuak saltzeko baimenik. Zergatik? Lur-ek euskararen batasunaren aldeko apustu finkoa egin zuelako. H madarikatua erabiltzen genuelako. Xabier Gereñok bere mahaian tarte bat utzi zigun arte. Han, Gereñok eskainitako bazterrean jarri genituen salgai gure liburuak.

Barkatuko didazue kontu zahar hauek azaleratzea baina helburu jakin batez egin dut azalpena. Aurtengo urrian Frankfurteko Liburu Azokan egon nintzen, munduko Liburu Azokarik garrantzitsuena eta handiena omen den horretan. Euskal argitaletxeen ordezkariek kexu ziren Frankfurteko estandaren txikiaz baina niri Durangotik Frankfurterako bidea zetorkidan gogora eten gabe eta ikuspuntu horretatik Frankfurtekoa jauregia zen, ez estanda. Gainera, bertan jendearen eskura jarritako liburuek H-a zeramatzen...

comprobar que Euskadi es una referencia, y no sólo en Europa. Tal como me dijo un saami de Finlandia, “Euskadi es el mejor ejemplo para saber qué puede pasar cuando se unen voluntad política y dinero”.

Y es así, admitámoslo. Pero a esa ecuación le falta algo: voluntad política, dinero y el impulso de toda una sociedad. Estas son las condiciones que han creado la situación actual. Supongamos que la voluntad política y el dinero se mantienen. La sociedad, sin embargo, ¿resistiría? Ese es el reto que se nos plantea.

Cultura

1957 fue el año en el que Txillardegi y Aresti publicaron su primer libro. Fue en la revista EGAN. Hace cincuenta años por lo tanto. Todavía pasarían diez años más hasta que se fundara la Feria de Durango.

Yo conocí la Feria años más tarde, en 1970. Media docena de mesas bajo el pórtico de la iglesia, un par de asnos y encima una tabla de madera. Eso era todo. Eso y el frío de la lluvia. Era a principios de diciembre.

Llegué a Durango un día antes, acompañada por Ramón Saizarbitoria e Ibon Sarasola y con la intención de empapelar la ciudad con carteles. El cartel era blanco, con tres letras escritas en verde. LUR. Nuestra editorial recién fundada, la primera editorial civil de Euskadi y la primera que no contaba con la aprobación eclesiástica.

Llegamos a Durango, en mi Dos Caballos, y empezamos a colocar los carteles en las paredes. Alrededor de la iglesia, primero, y en la calle mayor, después. Allí nos sorprendió la policía y los tres terminamos en la comisaría. El delito no sería muy grave o nosotros actuaríamos con convicción. El caso es que nos liberaron al poco rato. Eso sí, nos requisaron los carteles y la cola.

Al día siguiente fuimos a la feria, con los libros en el Dos Caballos, pero nos comunicaron que no teníamos permiso para venderlos. ¿Por qué? Porque LUR hizo una apuesta firme por la unificación del euskera. Porque empleábamos la maldita H. Xabier Gereño nos ofreció compartir su mesa. Fue allí, en aquel rincón cedido por Gereño, donde pusimos a la venta nuestros libros.

He recuperado estas viejas historias con un fin. En octubre acudí a la Feria del Libro de Frankfurt, la Feria del Libro más grande e importante del mundo. Los representantes de las editoriales vascas se quejaban de la dimensión de los stands de Frankfurt. Yo, sin embargo, me acordaba del camino recorrido desde Durango a Frankfurt. Y aquello me parecía un palacio, no un stand. Además, aquellos libros contenían la H.

Aspaldiko garaiak ez dira, gehienetan, hobeak. Are gehiago, gehienetan okerragoak dira, latzagoak.

Kulturaren atal hau bukatu baino lehen, beste puntu bat aipatu nahi dut. Kazetari naizen aldetik esango dizuet kulturarekin zer ikusia duten pertsonekin zerrenda bat egin behar baduzu, elkarritzetak nahiz erreportaiak egin ahal izateko, hizkuntza kontutan izan gabe ere, zerrenda hori gipuzkoarrez josia gertatuko zaizuela. Eta hori zerrenda egiten duenaren jatorria edozein dela ere. Pentsa ezazue bertsolaritzan, literaturan, musikan, arte plastikoetan, sukaldaritzan, zinemean antzerkian eta abarretan.

Antzeko zerbait gertatu zen Euskal Irrati Telebista martxan jarri zean, duela hogeita bost urte, bataz beste. Telea gipuzkoarrez jo-sita gertatu zela. Zergatik? Bada euskaldun eta hiritar batuketa gipuzkoarrek osatzen zutelako gehienbat orduan.

Aberastasun hori ez da desagertu. Alderantziz, ugaldu egin dela esango nuke.

Eta beste zerbait ere gehitu nahi nuke: aberastasun horrek babes ofizial gehiago behar du, besterik ez bada ere, aberastasun horrek dirua ere sor dezakeelako.

Are gehiago, baieztapen ez-zuzen bat egitera ausartuko naiz, agian guztiz ez-zuzena izan den hitzaldi honek merezi duena. Gure gizarteak ez dio hainbat kultur sortzaileri merezi duen eskerrona eskaini. Zorrak, puntu honetan asko dira. Ni behintzat, gipuzkoar naizen aldetik, zorretan sentitzen naiz horietako askorekin.

Muchas veces, los tiempos pasados no son mejores. Es más, la mayoría de las veces son peores, más duros.

Antes de terminar con este apartado quisiera resaltar otro aspecto. Si tienes que elaborar una lista con las personas del mundo de la cultura, para realizar una entrevista o reportaje, dicha lista estará repleta de guipuzcoanos. Sin tener en cuenta el idioma, ni la procedencia de la persona que elabora esta lista. Pensad en la literatura, la música, las artes plásticas, la cocina, el cine, el teatro, etc.

Algo parecido ocurrió hace 25 años cuando se creó la "Euskal Irrati Telebista". La televisión estaba llena de guipuzcoanos. ¿Por qué? Porque, precisamente, era en los guipuzcoanos donde mayormente se aunaba el hecho de ser euskaldun y ciudadano.

Esta riqueza no ha desaparecido. Todo lo contrario. Sigue aumentando. No obstante, esta riqueza requiere mayor apoyo de las instituciones. Aunque sea por el dinero que pueda generar.

Opino que nuestra sociedad no ha sabido agradecer y reconocer lo suficiente el trabajo de muchos creadores del mundo de la cultura. Las deudas al respecto son muchas. Yo, como guipuzcoana, me siento en deuda con muchos de ellos.

**Gipuzkoako gizarte
errealitatea eta euskal
administrazio publikoen
politiken erronkak**
(Iñigo Lamarca - Ararteko)



**La realidad social de Gipuzkoa
y los retos de las políticas
de las administraciones
públicas vascas**
(Iñigo Lamarca - Ararteko)

GIPUZKOAKO GIZARTE ERREALITATEA ETA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN POLITIKEN ERRONAK

Nire mintzaldian, ezin zen eta beste modu batean izan, Arartekoaren erakundean politika publikoen ebaluazioa egiteko eta gizarte errealitatea ezagutzeko burutzen dugun lanaren ikuspegitik arituko naiz, herritarren eskubideen gaietan arau, jarduketa publiko eta gero eta gizarte baldintza hobeak lortzeko, eskubide horiek osorik eta berdintasunean gauatzeko aukera izan dadin.

“Gizarte errealitatea” deituraren azpian, berezko entitatea duten eta, aldi berean, elkarri lotuta dauden gai asko ezkutatzen dira. Honako hauek, adibidez:

- bilakaera demografikoak;
- lana edo etxebizitzazko eskuratzeko aukerak;
- inmigracioa eta kultura aniztasuna;
- familia ereduak;
- gizarte ongizatea;
- gizarte kohesioa;
- pobrezia eta gizarte bazterketa...

Beraz, gaiari heltzeko aukera ezberdinak daude eta, ziur aski, guztiak apuntuko dira mahai honetan egingo diren hiru mintzaldietan, gai batzuk edo beste batzuk azpimarratzean. Arartekona naizen aldetik, nire ustez, gizarte ongizateak, gizarte kohesioak, gizarte eskubideek eta bazterketaren kontrako borrokak osatzen duten eremu zabala jorratu edo nabarmendu behar dut batez ere; eta euskal herri-administrazioen jarduerak eta politikak aztertu eta ebaluatzeko eginkizuna dugunez gero, iristear dagoen etorkizuneko erronak adierazi behar ditugu.

Izan ere, legeak honako eginkizun hau eman zion orain 20 bat urte Ararteko erakundeari: herritarren eskubideak babestea haien euskal administrazioekin dituzten harremanetan, eta gomendioak egitea, politika publikoak errealitate berrietara moldatuz joan daitezzen eta eraginkorragoak izan daitezen, egunero gipuzkoar eta euskal gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzea; alegría, bazterketak, pobrezia, ezberdintasunak edo bereizkeriak lekurik izango ez duten gizartea.

Eginkizun hori betetzearen, azken urteotan, Arartekoak xehe-mehe aztertu du gizarteko sektore edo jarduera-eremu batzuen egoera: hala nola, adingabeak babesteko sistema, oinarrizko gizarte zerbitzuak, adinekoei egoitzetan ematen zaien arreta, pertsona horiei ematen zaien etxeko lagunza, buru-osasuneko arazo larriak dituzten pertsonei eskainitako arreta, erakundeek emakumeen kontrako indarkeriari nola erantzuten dioten, ezintasunen bat duten pertsonek lana lortzeko dituzten aukerak, bizitokirik gabe edo baztertuak izateko arrisku larrian dauden pertsonei emandako arreta, etxebizitza bat lortzeko zailitasunak, e.a.

LA REALIDAD SOCIAL DE GIPUZKOA Y LOS RETOS DE LAS POLÍTICAS DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS

En mi intervención hablaré, como no podía ser de otra manera, desde la perspectiva del trabajo que llevamos a cabo en la institución del Ararteko en relación con la evaluación de las políticas públicas y el conocimiento de la realidad social con objeto de que los derechos de la ciudadanía encuentren un contexto de normas, actuaciones públicas y condiciones sociales cada vez mejores para su ejercicio pleno e igualitario.

Bajo el término de “realidad social” se esconden muchas cuestiones con entidad propia y, al mismo tiempo, entrelazadas entre sí. Cuestiones como:

- la evolución demográfica;
- las posibilidades de acceso a un empleo o a una vivienda;
- la inmigración y la diversidad cultural;
- los modelos de familia;
- el bienestar social;
- la cohesión social;
- la pobreza y la exclusión social...

Aunque podría haber diferentes posibilidades de abordar el tema, y como Ararteko, creo que debo centrarme o incidir principalmente en el amplio espacio que conforman el bienestar social, la cohesión social, los derechos sociales y la lucha contra la exclusión; y, dadas nuestras funciones de monitoreo y evaluación de las actuaciones y políticas de las administraciones públicas vascas, consecuentemente trazar los retos del futuro inmediato.

Porque la tarea que la ley encargó a la institución del Ararteko hace poco más de 20 años es, precisamente, la defensa de los derechos de la ciudadanía en relación con las administraciones vascas y formular recomendaciones para que las políticas públicas vayan adecuándose a las nuevas realidades y mejorando en su eficacia para ir construyendo cada día una sociedad guipuzcoana y vasca más inclusiva y cohesionada donde no queda la exclusión, la pobreza, la desigualdad ni la discriminación.

De acuerdo con esta tarea, durante los últimos años, el Ararteko ha estudiado en profundidad la situación de determinados sectores o campos de intervención social: el sistema de protección de menores, los servicios sociales de base, la atención residencial de las personas mayores, la atención domiciliaria a estas personas, la atención a las personas con graves problemas de salud mental, la respuesta institucional a la violencia contra las mujeres, las posibilidades de empleo de las personas con discapacidad, la atención a las personas sin hogar o en riesgo grave de exclusión, las dificultades para acceder a una vivienda, etc.

Iokus daitekeenez, gizarteko arazo jakin batean edo biztanleriaren sektore zehatz batean oinarritutako azterketak dira, eta ia kasu guztietan, biztanle horiek egoera izugarri ahulean bizi dira.

Txosten bereziak edo monografikoak eginez eta gizarte erakundeekin, adituekin eta administrazioetako arduradunekin bilerak eginez jakin dugu gizarte errealtitate horren berri. Baina baita ere jasotzen ditugun kexen bitartez, edo zerbitzu horiek eskaintzen dituzten zentro, egoitza edo baliabideetara egiten ditugun bisiten bitartez. Errealitatearen ezaguera horretatik, behin eta beirriz errepikatzen diren hainbat elementu nabarmendu daitezke, arazo komunak. Horiek lagun diezagukete, hain justu, erronkak edo hobetu beharreko alderdiak antzematen: oraingo erronkak eta iristear dagoen etorkizunekoak. Horrexetan ahaleginduko naiz mintzaldi honetan.

Eskubideen eta, zehazkiago, gizarte eskubideen ikuspegitik, age-rikoak dira gure gizartean gertatu diren aldaketa handiak Europako Batasuna osatu zenetik igarotako 50 urte hauetan eta, batik bat, Batasun horren kide izaten daramatzagun azken bi hamarkadetan; azken 20 urteotan, gizarte gipuzkoarrak egundoko jauzia egin du Estatu sozial sendoa eraikitzeko bidean. Estatu sozial horretan, eskubide sozialek aintzat hartzeko moduko garrantzia lortu dute eta laguntza sozioekonomikoen sistema zabal eta trinkoa eraiki da, bi ildo nagusitan oinarritura: lehena, herritar guztiei bizirauteko gutxienezko baldintzak bermatzea, eta bigarrena, gizarteko ezberdintasunak haztatzea. Arestian adierazi bezala, egiaztatu dugunez, 20 urte hauetan, gipuzkoar gizartean aldaketa sakonak gertatu dira: bere egituraren, bere beharretan eta baita bere eskaera eta nahietan ere.

Gipuzkoaren kontzientzian ere aldaketak gertatu direla esan liteke, eskubide sozialak dituzten subjektu direnez. Horrela, Europako Batasunean sartu izanak lehen begiratuan lirudikeena baino eragin handiagoa izan du, eta du oraindik ere. Batasuneko europar herrialderik aurreratuenen bereizgarrietako bat zera da: oso ondo dakite eskubide sozialak dituztela eta, hortaz, eskubideok exiji daitezkeela. Eskubideen kontzientzia hori bat dator herrialde horietan ongizate Estatua deritzanak izan duen garapen bikainarekin (bidenabar esango dugu ongizate Estatua goitik behera berriztatu beharra dagoela, iraungo duela ziurtatzeko). Ongizate Estatu hori lortzeko, lehentasuneko helburutzat jo dira pobreziaaren eta bazterketaren kontra borrokatzea eta lana sortzeko nahiz aberastasuna banatzeko ahaleginak.

Orduan, Europa, Europako Batasuna, geure burua konparatzeko errealtitate bat da guretzat, baina baita xede edo jomuga bat ere. Batasuneko herrialderik aurreratuenetan bultzatu diren gizarte-politiketako asko, beren mugen eta arazoekin, eredu ona dira gaur egun munduko beste herrialde batzuentzat, eta geure ahaleginak eta gizarte lorpenak balioztatzen lagun diezaguketen adierazleak eskaintzen dizkigute.

Como se puede ver, se trata de análisis centrados en una determinada problemática social o en un determinado sector de la población, prácticamente en todos los casos, en situaciones de especial vulnerabilidad.

El conocimiento de la realidad social lo hemos adquirido mediante la elaboración de informes extraordinarios o monográficos, y por medio de reuniones con organizaciones sociales, expertos y responsables de las administraciones. Pero también a través de las quejas que recibimos o de las visitas que efectuamos a los centros, dependencias o recursos donde se prestan los servicios. De ese conocimiento al que hacía referencia, es posible entresacar algunos elementos que se repiten, problemas comunes, que pueden ayudarnos a detectar cuáles son los retos o los aspectos esenciales necesitados de mejora: los retos del presente y los retos del futuro inmediato. Es lo que trataré de hacer en esta intervención.

Desde la perspectiva de los derechos, y más concretamente, de los derechos sociales, son evidentes los grandes cambios experimentados en nuestra sociedad, en el periodo de 50 años transcurrido desde la constitución de la Unión Europea, y sobre todo durante las dos últimas décadas en las que llevamos formando parte de ella, 20 años en los que la sociedad guipuzcoana ha dado un salto de gigante en la línea de construir un sólido Estado social en el que han adquirido carta de naturaleza los derechos sociales y se ha construido un amplio y denso sistema de prestaciones socio-económicas sobre las directrices de garantizar niveles mínimos de subsistencia a toda la ciudadanía y de ponderar las desigualdades sociales. En estos 20 años podemos constatar que se han operado cambios profundos en la sociedad guipuzcoana: en su estructura, en sus necesidades, y también en sus demandas y aspiraciones.

Cabría hablar también de cambios en la conciencia de los guipuzcoanos y guipuzcoanas como sujetos de derechos sociales. En este sentido, la incorporación a la Unión Europea ha influido y está influyendo más de lo que a primera vista pudiera parecer. Una de las características de la ciudadanía de los países europeos más avanzados de la Unión es su elevada conciencia y consiguiente exigibilidad con respecto a los derechos sociales, que se corresponde con el gran desarrollo que ha adquirido en esos países el denominado Estado del bienestar (necesitado de una gran reforma para garantizar su sostenibilidad, dicho sea de paso), para el que han sido una prioridad la lucha contra la pobreza y la exclusión, y los esfuerzos por la creación de empleo y el reparto de la riqueza.

Por consiguiente, Europa, la Unión Europea, es para nosotros tanto una realidad, con la cual podemos compararlos, como una meta, un horizonte. Muchas de las políticas sociales impulsadas en los países avanzados de la Unión, con sus limitaciones y sus problemas, constituyen hoy un buen ejemplo para otras partes del mundo, y nos ofrecen indicadores que pueden ayudarnos a valorar nuestros propios esfuerzos y nuestros logros sociales.

Gure gizartearen eman diren aldaketei dagokienez, horietako bi nabarmendu nahi nituzke, esku artean dugun gaian gaur egun duten eta etorkizunean izango duten garrantziarengatik. Biztanleriaren zahartze prozesuari buruz ari naiz, alde batetik, eta gizarte aniztunaren areagotzeari buruz, beste aldetik.

Epe labur batean, 65 urtetik gorako biztanle kopurua Gipuzkoako biztanle kopuru osoaren ehuneko 20ra iritsiko da. Orain dela 50 urte ehuneko 7aren inguruan zegoen; eta, orain dela 20 urte, ehuneko 11 zen gutxi gorabehera. 80 urtetik gorako biztanle kopurua ere –hau da, mendekotasun handiena izango luketenak– azkar ari da hazten, eta hazten jarraituko du gainera. Horrek esan nahi du biztanleriaren sektore hori artatzerakoan sortuko diren beharrak nabarmen areagotuko direla. Datu esanguratsu bat emateagatik, azpimarratu behar dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urteotan gizarte ekintzara bideratu duen aurrekontuaren ia erdia adineko pertsonen beharrak asetzeko erabiltzen dela. Arlo horretan azken bi hamarkadetan egin den ahalegina, beraz, izugarria izan da, eta nabarmen egin da aurrera. Hori dela eta, poztu egin beharko genuke. Eta, hala eta guztiz ere, erakundeek emandako arretaz (egoitzak, eguneko zentroak eta etxez etxez laguntza zerbitzua globalki kontuan hartuta), esan behar dugu, iazko datuen arabera, artatutako biztanle kopurua ez zela Gipuzkoako 65 urtetik gorako biztanleen ehuneko 10era iritsi, eta gainera ez zirela behar guztiak behar bezala ase. Kontuan hartzen badugu bizi itxaropena, zorionez, handitzen ari dela baina, aldi berean mendekotasunen bat duten adinekoen kopurua ere handitzen ari dela, berehalako etorkizunean dugun erronka nagusienetako bat adinekoentzako asistentzia sarea etengabe eguneratzea eta optimizatzea izango da, ekitate irizpideen arabera.

Gizarte aniztasunari dagokionez, berriz, bi alderditan jarri nahi nuke arreta berezia: lehena, atzerrian jaiotako biztanle kopuruaren igoera, eta, bigarrena, familia antolaketan eta familia ereduetan aurki dezakeengun aniztasuna eta horietan eman den aldaketa. Egia da pertsona etorkinen proportzioa Gipuzkoan oraindik nahiko txikia dela (ehuneko 5 inguru), Estatuaren batez bestekoarekin alderatuta, Estatuan bikotza baita, edo Madril edo Katalunia bezalako erkidegoen hainbat zona dinamikoagorekin alderatuta, horietan %15 ingurukoa baita. Hala ere, urtetik urtera hazten ari da, eta zenbait pertsonari hazkunde erritmoa azkarregia iruditu arren, erritmo hori geldiezina izateaz gain giza elkartasunaren aldetik begiratuta osasungarria ere bada, eta gehiago esango nuke, ekonomiaren eta demografia eta gizartearen arloko iraunkortasunetik begiratuta, beharrezkoa ere bada. Eremu horretan, erronka nagusia, berehalako etorkizun batean behintzat, eskaeren igoerari erantzutea baino gehiago, ezta termino ekonomikoean hitz eginda ere (izan ere, azterketa guziek erakutsi dute kolektibo horrek ekonomiari egiten dion ekarpena kolektiboak berak sortzen dituen beharrek eragindako kostea baino askoz handiagoa dela), horien gizarteratze eraginkorra lortzea dela. Beste hitz batzuetan esateko, aspaldiko aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko erronka eta denon artean gizarte interkultural berria edo berritua eraikitzeakoa.

Respecto a los cambios experimentados en nuestra sociedad, quiero poner el acento en dos de ellos, por su trascendencia presente y futura en el tema que nos ocupa. Me refiero al envejecimiento de la población, por una parte, y al aumento de la diversidad social, por el otro.

En muy poco tiempo, la población mayor de 65 años llegará al 20 por ciento del conjunto de Gipuzkoa. Hace 50 años rondaba el 7 por ciento; hace 20, el 11 por ciento. También la población mayor de 80 años –es decir, la población con mayores probabilidades de dependencia– crece rápidamente y seguirá creciendo. Esto supone un incremento notable de las necesidades de atención a este sector de la población. Por ofrecer un dato significativo, hemos de subrayar que casi la mitad del presupuesto destinado en los últimos años a acción social por parte de la Diputación Foral se está dedicando a la atención de las personas mayores. El esfuerzo que se ha hecho en estas dos décadas en este campo ha sido, pues, formidable y se ha avanzado de manera notable, por todo lo cual debemos felicitarnos. Y, sin embargo, la atención institucional (considerando globalmente la atención residencial, la de centros de día y la ayuda domiciliaria) no llegaba, según datos del año pasado, al 10 por ciento de la población mayor de 65 años de Gipuzkoa y no cubre debidamente todas las necesidades. Teniendo en cuenta que la esperanza de vida va, afortunadamente, en aumento pero también crece, en paralelo, la población mayor dependiente, uno de los retos de futuro inmediato de calado más grande va a ser la actualización y optimización constante de la red asistencial para las personas mayores conforme a criterios de equidad.

En cuanto a la diversidad social, quisiera fijar la atención en dos aspectos: el incremento de la población de origen extranjero y la diversidad y cambio de la organización y modelos familiares. Es verdad que la proporción de personas inmigrantes en Gipuzkoa es todavía bastante pequeña (en torno al 5 por ciento) en comparación con la media del Estado, que es el doble, o con las zonas más dinámicas de Comunidades como Madrid o Cataluña, donde es del 15%. Sin embargo, va en aumento año tras año, a un ritmo que, aunque a algunas personas les parece demasiado rápido, resulta imparable, además de saludable desde el punto de vista de la solidaridad humana, e incluso necesario desde la perspectiva de la economía y de la sostenibilidad demográfica y social. En este terreno, el reto principal, al menos en el futuro inmediato, no es tanto el de responder a un incremento de las demandas, ni siquiera en términos económicos (de hecho, todos los estudios muestran que la aportación de este colectivo a la economía es muy superior al coste que generan sus necesidades), cuanto el de lograr su efectiva integración social. Dicho en otros términos, el reto de superar viejos prejuicios y estereotipos y construir entre todos una nueva o renovada sociedad intercultural.

Baina, horretaz gain, familia ereduetan eman den aldaketa ere aipatu egin dut. Baliteke alderdi hau gutxiago hautematea, baina bestea bezain garrantzitsua da.

Orain dela oso urte gutxi arte familiak hainbat zeregin betetzen zituen egoera ahulenean bizi ziren pertsonak babesteko, nolabait esateko aterki, koltxoi, azken sarea izatearen papera betetzen zuen: pobreza egoera edo enplegua galtzea, mendekotasun egoera, buruko gaixotasunak arazoak, edo ahalmen urritasunak. Eta familiak hori egiten zuen emakumezkoek, gure amek zein amonek, etxearen lan egiten zutelako –eta gaur egun ere jarraitzen dute– lanaldi bukaezinetan hiru pertsonak adina lan eginez, laguntza behar zuten senitarteko osasuna zaindu eta ongizatea bermatzeko. Gaur egun ere oraindik familiak funtsezko zeregina betetzen du asistentzia baliabide bezala, baina gero eta zailtasun handiagoak ditu. Horretan zerikusia du, batz ere, emakumezkoak etxetik kanpoko lan merkatura sartu izanarekin, baina beste hainbat faktore ere kontuan hartzekoak dira: kasu askotan guraso eta seme-alaben aranean dagoen distantzia fisikoa, bizitokiari dagokionez, lan merkatuaren aldaketak direla medio, baita gero eta handiagoa den lan mugikortasunaren ondorioz ere; guraso bakarreko familia eta berriz eratutako familia kopuruaren hazkunde, eta abar. Horrek guztiak zailagoa egiten du familiak adinekoei eta, oro har mendekotasuna duten pertsonei, behar bezalako arreta eman ahal izatea. Eta horren ondorioa, ezin zen bestela izan, –eta berehalako etorkizunean areagotu egindo da– gizarte zerbitzuen “sistemari” egindako eskari kopuruaren hazkuntza da.

Maiz, aldaketak pixkanaka, ez hautemateko moduan baina etengabe gertatzen dira, gure begien aurrean, errealityate berriei lotutako arazoek gure atea jo arte, zenbaitetan era zakar samarrean, aldaketa horien kontzientzia hartu gabe. Urte batzuk dituen edozeinek nahiko du gogoratzea nolakoa zen bere ingurunea orain dela 50 urte, edo 20 urte ere bai, eta gaur egungo ingurunearerin alderatzea, izan diren aldaketez ohartzeko.

Hortaz, behar berriak eta gizarte eskaera berriak daude, baita behar bezala ase ez diren behar zeharrak ere, eta, ondorioz, eman diren aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboek zalantzaz jar dezakete beharrei erantzuteko dugun ahalmena.

Eta, hain zuen ere, orain gai horri heldu nahi nioke: Prestatuta al gaude behar berriei aurre egiteko? Gure “gizarte sistema” behar bezala egituratua dago handitzen ari den eskaera kopuruari kalitatezko erantzuna emateko? Ikuspegi horretatik begiratuta, zein erronka planteatzen zaizkigu?

Zehaztasun gehiegi emateko asmorik gabe, erronka horietako batzuk aipatuko ditut, betiere Arartekoaren erakundearen ikuspegitik eta eskura dugun informazio emanet. Hau da, ombudsman motako erakunde honen egitekoari dagokion funtziaren arabera, pertsonen eskubideak bermatzeko funtziola, hain zuzen ere.

Pero he citado también el cambio en los modelos familiares, tal vez menos perceptible pero no menos importante.

Hasta hace pocos años la familia podía hacer de paraguas, de colchón, de última red, de elemento de atención y protección ante gran parte de las situaciones de especial vulnerabilidad: una situación de pobreza o de pérdida de empleo, una situación de dependencia, o de enfermedad mental, o de discapacidad. Y lo hacía porque las mujeres, nuestras madres y abuelas, trabajaban –y lo siguen haciendo– en casa, en jornadas de trabajo interminables, multiplicándose por tres, para cuidar de la salud y el bienestar de los familiares necesitados. Todavía hoy la familia sigue cumpliendo un papel fundamental como recurso asistencial pero cada vez con mayores dificultades. Ello tiene que ver, sobre todo, con la incorporación de las mujeres al mercado de trabajo fuera de casa, pero también con otros factores: la distancia física en muchos casos, en lo que respecta al lugar de residencia, entre padres e hijos por las transformaciones del mercado de trabajo y la movilidad laboral creciente; el aumento de las familias monoparentales y de familias reconstituidas, etc. Todo ello dificulta la atención familiar a las personas mayores y dependientes en general. La consecuencia inevitable está siendo –y lo será más en el futuro próximo– el incremento de las demandas al “sistema” de los servicios sociales.

Con frecuencia, los cambios se van produciendo de una manera poco perceptible pero imparable, ante nuestros propios ojos, sin que adquiramos conciencia de los mismos hasta que los problemas asociados a las nuevas realidades tocan a nuestra puerta, a veces de forma abrupta. Cualquiera que tenga unos años, basta que recuerde cómo era su entorno hace 50 años, o incluso hace 20, y lo compare con su entorno actual, y podrá percibirse de los cambios experimentados.

Hay, pues, nuevas necesidades y nuevas demandas sociales, y también viejas necesidades insuficientemente atendidas, todo lo cual ha experimentado o está experimentando tales cambios cuantitativos y cualitativos que pueden poner en cuestión nuestra capacidad de respuesta.

Y ésta es precisamente la cuestión que quisiera abordar ahora: ¿Estamos preparados para hacer frente a las nuevas necesidades? ¿Está nuestro “sistema social” suficientemente estructurado para dar una respuesta de calidad a las crecientes demandas? ¿Cuáles son los retos desde esta perspectiva?

Sin ánimo de ser exhaustivos, señalaré algunos de estos retos, en función siempre de la información y de la óptica de la institución del Ararteko. Es decir, en función de la misión que le corresponde a esta institución tipo ombudsman, de garantía de los derechos de las personas.

Ekitatearen erronka

Hau da, lortu behar dugun gizarte ereduak bermatu egin beharko du gizarte ondasunak gozatzeko garaian ematen diren desberdintasunak, gutxienez maila ekonomikoan bizitza duina izateko oinarrizkoak diren ondasunak, ez egotea honako faktoreen mende: lan egoera, jatorria, adina, generoa, norberaren bizitokia, gaitasun edo ezintasun egoerak, edo maila pertsonal edo familiarreko beste edozein faktore.

Biztanle guztientzat gutxieneko gizarte eskubideak ezarri eta bermatzeko erronka

Gai honek aurrekoarekin zerikusi handia du. Beharrezkoa da pertsona orok, aurretik adierazitako faktore horiek guztiak alde batera utzita, jasotzeo eskubidea duen zerbitzu sorta eta gizarte prestazioen inguruari argitasun handiagoa lortzea. Beharrezkoa da, era berean, atalase maila batzuk ezartzea, zuhurtasunez, bizitza duin gisa ulertzen dugun horri lotuta, inor maila horien azpitik bizi ez dadin; izan ere, gaur egun adineko alargun askorekin hori gertatzen da, edo minusbalotasunen bat duten pertsona batzuekin, igogailurik ez edukitzeagatik ezin baitira etxetik atera.

Horrek guztiak eskatzen du gizarte zerbitzuen gaietan lege berri bat egitea, diagnostiko egokiei jarraiki egina, eta, era berean, lege horrek politika publiko eraginkorrik diseinatzea, gizarte eskubideak zehatz-mehatz ezartzea, lege hori garatu eta aplikatzea, baita berme sistema aurreratu bat aplikatzea ere.

Administrazioen arteko koordinazioaren erronka

Eskumenen egungo banaketak eta ongizate politiketan esku hartzen duten administrazio eta departamentuen aniztasunak partekatutako konpromiso baten aurrean gaudela adieraz lezakete, baina, zenbaitetan, egoera horrek arazoak sortzen ditu, esku hartzeari eraginkortasuna kentzen baitio: biztanleen artean sor dezakeen segurtasun ezarengatik, prozesuen burokratizazioengatik, gabezia edo bikoitzasunengatik, administrazio ezberdinek erantzukizuna elkarri pasatzeagatik, eta abar. Adibide gisa aipa liteke eremu soziosanitarioa egituratzeko prozesuan aurrera egiteko garaian zaitasun ugari aurkitu direla.

Administrazioaren zientzien garapenak gaur egun antolaketa irtenbideak eskaintzen ditu, baita administrazioen arteko jarduerak burutzeko aukera ere, lankidetza, koordinazioa eta elkarlana oinarri hartuta. Gainera, eskumen eremuak errespetatuta elkarlanaren ondorioz arlo honetako egoera asko hobe daiteke.

El reto de la equidad

Es decir, el reto de lograr una sociedad en la que las diferencias en cuanto al disfrute de los bienes sociales, al menos de los que se consideran esenciales para una vida digna en un plano económico, no dependan de factores como la situación laboral, el origen, la edad, el género, el lugar en que uno vive, su situación de capacidad o incapacidad, o cualquier otro factor personal o familiar.

El reto de establecer y garantizar unos derechos sociales mínimos para toda la ciudadanía

